Hatsa Euskal Museoarentzat

Baionako museoaren zulo ekonomikoa estaltzeko norabideak eta finantzaketa berrantolatuko dituzte

NORA ARBELBIDE
Baiona



Erakustokiko beheko salan ageri diren eskorgak; estetika landua bada ere, azalpenak eskasak dira . BOB EDME

Baionako Euskal Museoak garai berriak biziko ditu hemendik aitzina. Hala espero dute, hasteko, Baionako agintariek.

Izan ere, azken urte hauetan urtean milioi bat euro gastatu behar izan du Baionako hiriak museoaren funtzionamendurako, eta horrela segitzea ezinezkoa dela argi zuten guztiek. Egoera aldatzeko asmoz, justuki, barne azterketa bat adostu zuten urte hastapenean. Azpiegitura juridiko berri bat sortzekoa dute. Frantzia hegoaldeko Les Maitres du Reves enpresa pribatuak bere gain hartu, eta berrikitan jakinarazi dituzte horren lehen ondorioak; bereziki egituraketa teknikoari lotuak direnak, museoaren kudeaketari.

Berri nagusia, agian, azpiegitura juridiko berri bat sortzekoa dutela izan daiteke. Orain arte Baionako hiriaren esku zen finantzaketa guztia, baina hemendik aitzina kostuaren %40 bakarrik ukanen du bere gain. Gaineratekoa, Baiona, Angelu eta Miarritzeko hiri elkargoaren eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiaren artean dute partekatuko. Bakoitzak %30. Hiru kolektibitate horiek sindikatu misto bat osatuko dute. Horri esarte baino autonomia handiagoa ukanen du museoak. Alabaina, lotura hertsi horrek museoaren funtzionamenduan freno asko ekartzen zituela onartu dute denek. Sindikatu mistoaz gain, norabideak marrazteko kontseilu bat ere sortzekoa dute. Horretarako, kulturan eta turismoan lanean ari direnak gonbidatzekoak dituzte. Baliteke museoen arteko sare bat osatzea, hala nola Irisarriko Ospitalearekin.

Bi bide berri horiek joan den uztailaren 28an kolektibitateen ardu-

dituzte, eta oraino printzipioak bakarrik dira. Udazkenean dira zinez errealitate bilakatuko.

Beste puntuen artean, museoak erakustera ematen duenari buruz daukan irizpide eskasa izan da ateratako beste ondorio bat. Hori onarturik, agintariek euskal nortasunean oinarritzen den kultur proiektu baten beharra azpima-

Hemendik aitzina Baionako Udalak ez du gehiago osoki finantzatuko museoa;

rratu dute. Museoa euskalduntasunari buruzko euskarri bat izateko helburuarekin sortua izan dela gogoratu du, hain justu, ikerketak. Euskal nortasunaren ondoan, Baionako hiria eta Aturri ibaiaren historiaren erreferentzia izan behar duela gaineratu dute.

MANAGER KULTURAL BAT. Hori guztia jakina bazen orain arte ere, agian, mezuan direla eskasak nabarmendu da. Alde horretatik hobetzeko aukerak izan daitezkeela diote. Museoaren antolaketa estetikoa

maren aberastasuna, honen erabilpenaren aldetik hutsuneak badaudela damutzen dira agintariak.

Baina, hala eta guztiz ere, horri buruzko eztabaida oraino hastekoa da. Norabideen marrazteko tenorean argituko dena, segur aski. Bizkitartean, halere, jadanik adostua dute manager kultural baten lanpostuaren sorrera. 2007ko urtarrilean hastekoa da lanean. *Bere betebeharrak zein izanen diren ez baldin bada ere oraino publikoki* jakina, komunikazioaren sektorean dauden akatsez arduratzekoa da, iduriz. Alabaina, funtzionamendurako diru guztia gastatzen zela, ez zen gehiago dirurik gelditzen horretarako.

Museoaren kontserbatzaileak alde zientifikoa segurtatzen duela —hau da, bildumen zainketa baita obrei buruzko informazioa zabaltzea—, managerraren lana erakustokiaren promozioaz arduratzea litzateke besteak beste. Errentagarritasun bat segurtatzea, errentagarritasuna eta kultura lotzea, berez, arriskutsua baldin bada ere. Jatetxe bat, denda bat eta behin behineko erakusketentzako leku egoki bat aurkitu beharko luke.

Heldu diren hilabeteetan zain egon beharko da ikusteko aitzinatzen den guztia. Ikusteko oraingoan funtzionatzen duen desafioak. Jadanik berrantolatua baitzuten orain dela bost urte, dena arraberriturik, luzaz, seguritate eskasagatik itxirik atxiki ondoren. Baina laster ohartu ziren apainketa ez dela nahi museo bat birgaratzeko.